




LAGORATEGIA. ERREFUXIATUEK ETA MIGRATUEK EUSKADIN BIZI DITUZTEN DISKRIMINAZIOEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA, BANKETXEAN, ETXEBIZITZAREN AUZIAN ETA POLIZIAREKIN TRATUA IZATEAN.

DIAGNÓSTICO SOBRE LAS DISCRIMINACIONES QUE VIVEN EN EUSKADI LAS PERSONAS REFUGIADAS Y MIGRADAS EN EL ACCESO A LA BANCA, A LA VIVIENDA Y EL TRATO POLICIAL.

(zehar)

errefuxiatuekin




IAGORategia. Errefuxiatuek eta migratuek Euskadin bizi dituzten diskriminazioei buruzko diagnostikoa, banketxean, etxebitzaren auzian eta poliziarekin tratua izatean.

Diagnóstico sobre las discriminaciones que viven en Euskadi las personas refugiadas y migradas en el acceso a la banca, a la vivienda y el trato policial.

1. Sarrera.....	4
2. Lagorategia.....	7
Metodologia.....	9
Eremu-ikerketa	11
3. Diskriminazio-egoeren diagnostikoa.....	14
Diskriminazio-egoeren diagnostikoa.....	15
Diskriminazioa kontzeptualizatzea.....	17
Diskriminazio instituzionala.....	25
4. Leheneste-fasea.....	42
5. Diskriminazio-egoeretan sakontzeko fasea.....	45
Profil etnikoaren araberako identifikazioak.....	46
Diskriminazioa etxebizitza eskuratzean.....	49
Diskriminazioa banku-produktuak kontratatzean.....	52
6. Ondorioak.....	55

1. Introducción.....	4
2. El lagoratorio.....	7
Metodología.....	9
Trabajo de campo	11
3. Diagnóstico de situaciones de discriminación.....	14
Conceptualización de discriminación.....	15
Discriminación institucional.....	17
Discriminación entre personas	25
4. Priorización.....	42
5. Profundización en situaciones de discriminación.....	45
Identificaciones por perfil étnico	46
Discriminación en el acceso a la vivienda	49
Discriminación en la contratación de productos bancarios.....	52
6. Conclusiones.....	55



1.

Sarrera
Introducción

Eguneroko bizitza atzerriko pertsonekin partekatzen dugunok, errefuxiatuak edo migratuak izan, ondo dakigu beren jatorrizko herrialdeetan jasaten zituzten eskubide-urraketak ez direla desagertzen hona iristen direnean (iristea lortzen dutenen kasuan, noski). Harrera egiten diegu, bai, baina diskriminatu ere egiten ditugu. Eskala handian egiten dugu, diskriminazioa instituzionalizatzen duten lege eta praktiken bidez. Baina eskala txikian ere bai, guztiz aitortzen ez ditugun pertsonen gainera kokatzen dugunean gure burua.

Horrexegatik, txosten honetan azaltzen den ezerk ez gaitu harritzen. Eta, hala ere, honaino iristeko bidea merezi izan du. Benetan merezi izan du. **Topagunea da IAGORategia, ahotsa duten arren ukatu egiten zaien pertsonen hitz egiteko espazioa. Eraikuntza politikoa egiteko gunea da, agerian uzteko ezin dela hainbeste pertsona joko kanpo utzi beren jatorriagatik; edo sexu-orientazioagatik, baldintza funtzionalengatik edota** beste hainbat faktorerengatik. Izan ere, faktore horietan oinarritzen dira datozen orrialdeetan deskribatzen diren diskriminazioak, gizarteko usteen araberakoak.

Hala ulertzen dute eztabaida-taldeetan parte hartu dutenek (dugunok); bihotz-bihotzez eskertu behar diegu beren bizipenak ikerketa-taldearekin partekatu dituztenei, ez baita erraza diskriminazioez ari garenean.

Min ematen duena kontatzeaz gain —baztertzen duelako, bidegabekoa delako, eskubideak urratzen dituelako—, IAGORategia bizitza partekatzeko lekua ere bada, oro har. Eta praktikaren bidez erakusten dugu bizikidetzak ez dela hain zaila, alde batetik, oinarritzko baldintza objektiboak betetzen badira (denon eskubideak berdin betetzea: etxebizitza, enplegua, etab.) eta, bestetik, aukera ematen badiogu gure buruari aldi berean desberdinak eta berdinak garenok elkarren bizikidetzak izateko.

Quienes compartimos nuestro día a día con personas de origen extranjero, sean refugiadas o migradas, sabemos que las vulneraciones de derechos que sufrían en sus países de origen no desaparecen cuando llegan aquí (quienes lo consiguen, claro). Acogemos, sí, pero también discriminamos. Lo hacemos a lo grande, a través de una legalidad y unas prácticas que institucionalizan la discriminación. Pero también desde lo pequeño, cuando nos situamos por encima de otras personas a las que no terminamos de reconocer.

Por eso, nada de lo que en este informe se dice nos sorprende. Y, aun así, el camino para llegar hasta aquí ha merecido la pena. Mucho. **El IAGORatorio es un espacio de encuentro y escucha para personas que tienen voz, aunque se les niegue. Es un lugar para la construcción política, para posicionar que no se puede excluir del tablero social a tantas personas por su origen. O por su orientación sexual, sus condiciones funcionales o tantos otros factores** sobre los que se asientan, en base a atribuciones sociales, las discriminaciones que se describen en las páginas siguientes.

Así lo valoran quienes han participado (quienes hemos participado) en los grupos de discusión y a quienes tenemos que agradecer de todo corazón que hayan compartido con el equipo investigador sus vivencias, algo que no resulta sencillo tratándose de discriminaciones.

Además de contar lo que duele —porque excluye, porque es injusto, porque vulnera derechos—, el IAGORatorio es también un lugar donde compartir la vida, así, en general. Y demostramos, desde la práctica, que la convivencia no es tan difícil si se dan, por un lado, las condiciones objetivas imprescindibles (igualdad en el acceso a los derechos: vivienda, empleo, etc.), y si nos damos, por otro, la oportunidad de convivir entre quienes, a un tiempo, somos diferentes e iguales.

Eraikuntza kolektiboko praktikatetik abiatuta, gizarte gisa ditugun erronka amankomun guztiei aniztasunetik erantzuteak zoriontasunak lekua duen leku ezezagun horretara eraman gaitzake. Oso ameslariak gara? Ez dugu uste. Denok dugu asko irabazteko. Diskriminazioarekin ia mundu guztia da galtzaile. Gehiengoa, behintzat, bai.

Txosten honekin ahotsa goratu nahi dugu. Eta hori egiten jarraituko dugu, diskriminazioak salatzeo eta horiek desagerrarazteko formulak bilatzeko. Praktikaren bidez bizikidetzaren posible dela erakusten dugu. IAGORategia elkartu, entzun eta politikoki eragiteko askotariko espazioa da eta ateak irekita izaten jarraitzen du.

Responder desde la diversidad a todos los retos compartidos que tenemos como sociedad, desde prácticas de construcción colectiva, nos puede llevar a ese lugar todavía desconocido donde tiene cabida la felicidad. ¿Somos gente ilusa? No lo creemos. Todas y todos tenemos mucho que ganar. Con la discriminación casi todo el mundo pierde. Las mayorías, desde luego.

Con este informe alzamos la voz. Y lo vamos a seguir haciendo. Para denunciar las discriminaciones y para buscar fórmulas que permitan erradicarlas. Demostrando, desde la práctica, que la convivencia es posible. El IAGORatorio, ese espacio diverso de encuentro, escucha e incidencia política, sigue con sus puertas abiertas.






2.
IAGORAtegia
El IAGORAtorio

IAGORategia, antzinako Greziako agoretan egiten zen bezala, **komunitatearen inguruan ideiak eztabaidatu eta proposamenak sortzeko espazioa da.**

2022 urtean, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak **IAGORategi plurikulturalak sustatu zituen Euskal Herriko sei udalerritan, horietan bizi diren errefuxiatu, migratu eta bertako pertsonekin batera. Kulturalki askotarikoak diren pertsonen jasaten dituzten diskriminazio-egoerak, bizikidetzaz oztokatzen dutenak, kolektiboki identifikatzea zen helburua.** Bizikidetzari hainbat arlotatik eragiten dioten gaiak jorratu zituzten (aisialdia, etxebizitza...), eta diskriminazioaren interseksionalitatea kontuan hartu zen, besteak beste adina, sexu-orientazioa, genero-identitateak eta erlijioa aintzat hartuz.

Un IAGORatorio es un espacio en el que, como ocurriera en las antiguas ágoras griegas, **se debaten ideas y se generan propuestas en torno a la comunidad en el que se organiza.**

Durante el año 2022 Zehar-Errefuxiatuekin impulsó **IAGORatorios pluriculturales en seis municipios del País Vasco junto a personas refugiadas, migradas y locales que residen en ellos, con la idea de identificar colectivamente las distintas situaciones de discriminación que sufren las personas culturalmente diversas y que dificultan la convivencia intercultural.** Se abordaron cuestiones que afectan a la convivencia en diversos ámbitos (ocio, vivienda...), incorporando la interseccionalidad de la discriminación desde la edad, orientación sexual e identidades de género, religión profesada, etcétera.



Metodología

Elkarbizitzari eta diskriminazioari buruzko eztabaida sustatzea eta ekintza eraldatzaileak zehaztea da IAGORategiaren helburua, eta horrekin eskubide eta betebeharrak dituzten herritarren arteko bizikidetzak interkulturalak bultzatzea.

Eremu-ikerketak egin aurretik, ikerketa-taldeak diskriminazioaren kontzeptua eta tipologia aztertzen zituen eta, horri esker, aztergaia hobeto zehaztu eta informazio-bilketa ordenatu ahal izan zen.

IAGORategiak hiru fasetan lan egitea proposatzen du: lehenengo fasean, diskriminazio-bizipenei buruzko diagnostikoa egin eta ikuspegi orokorra lantzen da; bigarrean, egoera aipagarrienak lehenesten dira; eta, azken fasean, hautatutako egoeretan sakontzen da. Metodologia horri esker, pixkanaka aztergaia zentratu daiteke, gero horretan sakondu ahal izateko.

- **Diagnostikoaren fasea.** Eztabaida-taldeen bidez egin zen, eta horietan diskriminazio eta bizikidetzarekin lotutako bizipenak landu ziren. Eztabaida-taldeak bi motatan banatu ziren:
 - **Eztabaida migratu eta errefuxiatuekin,** konfiantza oinarrituta, diskriminazio-egoera ugari ikusarazteko. Espazio horietan parte hartu zuten pertsonak Zehar-Errefuxiatuekin eta CEAR Euskadi elkarteetako erabiltzaileak izan ziren.
 - **Zehar-Errefuxiatuekin eta CEAR Euskadiko teknikariekin osatutako espazioak,** migratu eta errefuxiatuekin landutako diskriminazio-egoeretan sakondu eta horiek osatzeko.

Metodología

El objetivo del IAGORAtorio es fomentar el debate sobre convivencia y discriminación y concretar acciones transformadoras para favorecer la convivencia intercultural entre ciudadanos y ciudadanas iguales en derechos y obligaciones.

Previamente al trabajo de campo, el equipo investigador realizó un análisis del concepto y tipologías de discriminación que permitió operativizar el objeto de estudio y ordenar la recogida de información.

El IAGORAtorio propone trabajar en tres fases diferentes: una primera de diagnóstico donde se hace un abordaje general sobre vivencias de discriminación; una segunda donde se priorizan las situaciones más relevantes; y una última fase donde se profundiza en las situaciones seleccionadas. Esta metodología permite ir centrando el objeto de estudio para poder ahondar en él.

- **Fase de diagnóstico.** Se realizó mediante grupos de discusión donde se trabajaron vivencias de discriminación y convivencia. Los grupos de discusión se dividieron en dos tipos:
 - **Espacios con personas migradas y refugiadas** donde, desde la confianza, se visibilizaron diferentes situaciones de discriminación. Los participantes de estos espacios fueron personas usuarias de Zehar-Errefuxiatuekin y CEAR en Euskadi.
 - **Espacios con personal técnico de Zehar-Errefuxiatuekin y CEAR en Euskadi** para ampliar y complementar las situaciones de discriminación sobre las que se había trabajado con personas migradas y refugiadas.

- **Leheneste-fasea.** Diagnostikoan jasotako informazioarekin, ikerketa-taldeak landu beharreko honako diskriminazio-egoera hauek hautatu zituen: profil etnikoaren arabera polizia-identifikazioak, diskriminazioa etxebizitza eskuratzean eta diskriminazioa banku-produktuak kontratatzean. Badakigu fase horrek egoera aipagarri asko kanpoan uzten dituela, baina ezinezkoa da guztiak lantzea baliabide faltagatik.
- **Sakontze-fasea.** Eztabaida-taldeak osatu ziren hautatutako diskriminazio-egoeretan sakontzeko eta egoera horiek gainditzeko tresnak ezagutzeko. Eztabaida-talde horiek gizarte zibileko tokiko eragile ugariarekin osatu ziren, hala nola antolakunde eta mugimendu sozialekin, erakunde eta administrazio publikoekin, migratutako eta errefuxiatutako pertsonekin eta atzerritar jatorriko pertsonen eta beste kolektibo batzuek jasaten duten diskriminazioan adituak direnekin.

Lagin ez-adierazgarri batean oinarritutako metodologia kualitatiboa erabiltzean, ateratako ondorioak ezin dira biztanleria migratu eta errefuxiatu osora estrapolatu, baina garrantzitsuak dira pertsona horiei eta antzeko egoerak bizi dituzten beste askori ahotsa ematen dieten neurrian. Ahots horiek legitimoak eta garrantzitsuak dira; izan ere, eskubide-gizarte batean, ezin da inola ere onartu horietakoren bat urratzea.

Eztabaida-talde guztietan barnebildu zen generoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegia, eta gizonek eta emakumeek jasaten duten eragin desberdina ere kontuan hartu zen.

- **Fase de priorización.** Con la información recogida en el diagnóstico, el equipo investigador seleccionó las siguientes situaciones discriminatorias sobre las que trabajar: identificaciones policiales por perfil étnico, discriminación en el acceso a la vivienda y discriminación en la contratación de productos bancarios. Somos conscientes de que esta fase deja fuera situaciones relevantes, pero resulta imposible abarcar todas ellas por falta de recursos.
- **Fase de profundización.** Se realizaron grupos de discusión para profundizar en las situaciones de discriminación seleccionadas y conocer herramientas de superación contra estas. Estos grupos de discusión se realizaron con diversos agentes locales de la sociedad civil como organizaciones y movimientos sociales, instituciones y administraciones públicas, personas migradas y refugiadas y especialistas en trato discriminatorio a personas de origen extranjero y a otros colectivos.

Al usar una metodología cualitativa, que trabaja con una muestra no representativa, las conclusiones extraídas no son extrapolables al conjunto de la población migrada y refugiada, pero son relevantes en la medida en que dan voz a estas personas y a otras muchas que viven circunstancias similares. Estas voces son legítimas e importantes, ya que, en una sociedad de derechos, no es admisible tolerar de ninguna forma la vulneración de alguno de ellos.

En todos los grupos de discusión se trabajó desde las perspectivas de género e intercultural, introduciendo debates sobre el impacto desigual entre hombres y mujeres.

Eremu-ikerketa

Diagnostikoa eztabaidatzeko taldeak migratu eta errefuxiatuekin.

- **Ekainaren 30ean, Gasteizen, zazpi lagunek** parte hartu zuten (bi gizonak eta bost emakumek).
- **Uztailaren 4an, Agurainen, lau lagunek** parte hartu zuten, denak emakumeak.
- **Uztailaren 14an, Bilbon, zortzi lagunek** parte hartu zuten (bost gizonak eta hiru emakumek).
- **Uztailaren 19an, Amurrion, zortzi lagunek** parte hartu zuten, denak emakumeak.
- **Uztailaren 26an, Donostian, bost lagunek** parte hartu zuten (lau gizonak eta emakume batek).
- **Uztailaren 29an, Tolosan, hamar lagunek** parte hartu zuten (zazpi gizonak eta hiru emakumek).
- **Azaroaren 2an, Durangon, bi lagunek** parte hartu zuten, biak emakumeak.

Diagnostikoa eztabaidatzeko taldeak Zehar eta CEAREko teknikariekin batera:

- **Uztailaren 19an, Gasteizen, hamasei lagunek** parte hartu zuten (lau gizonak eta 12 emakumek).
- **Irailaren 16an, Bilbon, sei lagunek** parte hartu zuten (gizon batek eta bost emakumek).

Trabajo de campo

Grupos de discusión de diagnóstico junto a personas migradas y refugiadas.

- El **30 de junio en Vitoria-Gasteiz**, con la participación de **siete personas** (dos hombres y cinco mujeres).
- El **4 de julio en Agurain**, con la participación de **cuatro personas**, todas ellas mujeres.
- El **14 de julio en Bilbao**, con la participación de **ocho personas** (cinco hombres y tres mujeres).
- El **19 de julio en Amurrio**, con la participación de **ocho personas**, todas ellas mujeres.
- El **26 de julio en Donostia**, con la participación de **cinco personas** (cuatro hombres y una mujer).
- El **29 de julio en Tolosa**, con la participación de **diez personas** (siete hombres y tres mujeres).
- El **2 de noviembre en Durango**, con la participación de **dos personas**, todas ellas mujeres.

Grupos de discusión de diagnóstico junto a personal técnico de Zehar y CEAR:

- El **19 de Julio en Vitoria-Gasteiz**, con la participación de **16 personas** (cuatro hombres y 12 mujeres).

- **Irailaren 29an, Bilbon, bi lagunek** parte hartu zuten (gizon batek eta emakume batek).
- **Irailaren 29an, Bilbon, lau lagunek** parte hartu zuten (gizon batek eta hiru emakumek).
- **Urriaren 28an, Gasteizen, bederatz lagunek** parte hartu zuten (zazpi emakumek eta bi gizonak).
- **Urriaren 31n, Gasteizen,** Gasteizko CEAREko psikologoarekin.
- **Azaroaren 10ean,** bideo-dei bidez, **arlo juridikoko bi teknikarirekin (bata gizona eta bestea emakumea).**

Sakontzeko eztabaida-taldeak:

- **Azaroaren 18an, Amurrion, zazpi lagunek** parte hartu zuten (gizon batek eta sei emakumek).
- **Azaroaren 18an, Durangon, 16 lagunek** parte hartu zuten (lau gizonak eta 12 emakumek).
- **Azaroaren 25ean, Agurainen, 14 lagunek** parte hartu zuten (bost gizonak eta bederatz emakumek).
- **Abenduaren 2an, Tolosan, 12 lagunek** parte hartu zuten (zortzi gizonak eta lau emakumek).

- **El 16 de septiembre en Bilbao,** con la participación de **seis personas** (un hombre y cinco mujeres).
- **El 29 de septiembre en Bilbao,** con la participación de **dos personas** (un hombre y una mujer).
- **El 29 de septiembre en Bilbao,** con la participación de **cuatro personas** (un hombre y tres mujeres).
- **El 28 de octubre en Vitoria-Gasteiz,** con la participación de **nueve personas** (siete mujeres y dos hombres).
- **El 31 de octubre en Vitoria-Gasteiz,** con la psicóloga de CEAR en Vitoria-Gasteiz.
- **El 10 de noviembre,** por videollamada, **con una técnica y un técnico del ámbito jurídico.**

Grupos de discusión de profundización:

- **El 18 de noviembre en Amurrio,** con la participación de **siete personas** (un hombre y seis mujeres).
- **El 18 de noviembre en Durango,** con la participación de **16 personas** (cuatro hombres y 12 mujeres).
- **El 25 de noviembre en Agurain,** con la participación de **14 personas** (cinco hombres y nueve mujeres)
- **El 2 de diciembre en Tolosa,** con la participación de **12 personas** (ocho hombres y cuatro mujeres).

- **Abenduaren 13an, Bilbon, 9 lagunek** parte hartu zuten (lau gizonak eta bost emakumek).
- **Abenduaren 14an, Donostian, 9 lagunek** parte hartu zuten (lau gizonak eta bost emakumek).
- **El 13 de diciembre en Bilbao, con la participación de 9 personas** (cuatro hombres y cinco mujeres)
- **El 14 de diciembre en Donostia, con la participación de 9 personas** (cuatro hombres y cinco mujeres)





3.

Diskriminazio-egoeren
diagnostikoa
*Diagnóstico de
situaciones de discriminación*

Diskriminazioa kontzeptualizatzea

Migratuek eta errefuxiatuek jasaten dituzten diskriminazio-egoerak zerrendatzen hasi aurretik, beharrezkoa da tarte bat hartzea txosten honetan erabiliko dugun diskriminazioaren kontzeptua eta tipologiak definitzeko. Diskriminazioaren definizio ugari existitzen diren arren, Eraberean Sareak eskaintzen diguna erabiliko dugu; sare horren parte da Zehar-Errefuxiatuekin.

Diskriminazioa da besteak beste ezaugarri fisikoak, jatorri etnikoa, genero orientazioa edo identitatea edota erlijioa bezalako arrazoiengatik bereiztea, baztertzea edo mugatzea, eta horren ondorioz oinarritzko eskubide eta askatasunak urratzea.

Diskriminazio horietako asko publikoak ez diren espazioetan gertatzen dira eta eguneroko ekintzetan lausotzen dira; horrek zaildu egiten du horiek identifikatzea eta sailkatzea. Dena den, eraginkorrago izateko, ekintza diskriminatzaileak hiru motatan bereiziko ditugu:

- **Egiturazko diskriminazioa.** Gizarte-egituran, horko praktketan eta horrek guztiak dakarren desberdinkerian "dispositibo orokorrak" ezartzen dira, eta hortik diskriminazio-egoerak sortzen dira; egoera horiek zeharka identifika daitezke bigarren mailako iturrietako datuen bidez, batez ere estatistiken bidez.
- **Diskriminazio instituzionala.** Egoera hori sortzen da eremu instituzionalean pertsona guztiak berdin tratatzen ez direnean eta administrazioko arau eta praktikek esparru instituzional diskriminatzailea sortzen dutenean.

Conceptualización de discriminación

Antes de comenzar a enumerar las situaciones de discriminación que sufren las personas migradas y refugiadas es necesario hacer una parada para definir el concepto y las tipologías de discriminación que usaremos en este informe. Aunque existen multitud de definiciones de discriminación, utilizaremos la que nos ofrece la Red Eraberean, de la que forma parte Zehar-Errefuxiatuekin.

Discriminación es la distinción, exclusión o restricción por razones como los rasgos físicos, el origen étnico, la orientación y/o la identidad de género o la religión (entre otros motivos) que tiene como consecuencia el menoscabo de derechos y libertades fundamentales.

Muchas de estas discriminaciones se dan en espacios que no son públicos y se diluyen en acciones cotidianas, lo que dificulta su identificación y clasificación. No obstante, con una finalidad operativa, distinguiremos las acciones discriminatorias en tres tipos:

- **Discriminación estructural.** Situaciones discriminatorias que emanan "desde los dispositivos generales" de la propia estructura social, de sus prácticas y de las desigualdades que conlleva, y que es identificable indirectamente a través de datos de fuentes secundarias, fundamentalmente estadísticas.
- **Discriminación institucional.** Situación que se genera cuando no se cumple la igualdad de trato en el ámbito institucional y cuando las normas y prácticas administrativas plantean un marco institucional discriminatorio.

- **Pertsonen arteko diskriminazioa.** Zuzenean pertsonen artean gertatzea diskriminazioa; eragileak askotarikoak izan daitezke.

Gure helburua tokiko gizarte-eragileekin eztabaida sustatzea eta ekintzak zehaztea denez, beharrezkoa da lana parte-hartzaileen bizipen eta esperientzietara moldatzea. Horregatik, egiturazko diskriminazioa existitzen den eta etengabea den arren, analisi honetatik kanpo utzi dugu, ez baita hauteman inplikaturako eragileen egunerokotasunean.

Jarraian, diagnostikoa eztabaidatzeko taldeetan agertu ziren diskriminazio-egoerak aurkeztuko ditugu, bai migratu eta errefuxiatuen artean azaldutakoak, bai erakundeetako teknikarien artean aipatuak. Egoera horiek erakundeek edo pertsonak eragindako diskriminazioa diren, horren arabera ordenatu dira.



Bestalde, analisi honetan agertzen diren testigantzei buruzko bi zehaztapen egin behar dira. Lehenik eta behin, lekukotza bakoitzaren hasieran adieraziko dugu ea emakume batek edo gizon batek egin duen eta zein taldeetan adierazi duen, migratu eta errefuxiatuek osatutako taldeetan ("migratua" esango dugu) edo Zehar-Errefuxiatuekin eta CEAR Euskadiko teknikarien taldeetan ("teknikaria" esango dugu). Bigarrenik, testigantzak ez dira hitzez-hitzekoak izango, analisia hobeto ulertu ahal izateko.

- **Discriminación entre personas.** Actos discriminatorios que se producen directamente entre personas, con actores que pueden llegar a ser diversos.

Debido a que nuestro objetivo es fomentar debates y concretar acciones con agentes sociales locales, es necesario aterrizar el trabajo a las vivencias y experiencias de las personas participantes. Por ello, las discriminaciones estructurales, aunque existen y son constantes, las hemos dejado fuera de este análisis al no ser percibidas en la cotidianeidad de los agentes implicados.

A continuación, presentaremos las situaciones de discriminación que emergieron en los grupos de discusión del diagnóstico, tanto entre personas migradas y refugiadas como entre personal técnico de organizaciones. Estas situaciones han sido ordenadas según sean discriminaciones institucionales o entre personas.

Es necesario hacer dos puntualizaciones sobre los testimonios que aparecen en este análisis. Primero, al comienzo de cada testimonio se indicará si ha sido realizado por una mujer o un hombre y si ha sido verbalizado en los grupos de personas migradas y refugiadas (indicando migrada) o de los grupos de técnicas de Zehar-Errefuxiatuekin o CEAR en Euskadi (indicando técnica). Segundo, los testimonios no serán literales para facilitar la comprensión del análisis.



Diskriminazio instituzionala

Botere eta administrazio publikoak, batzuetan, eragile diskriminatzaileak izaten dira, lege, prozedura eta jarreraren bidez zaildu egiten baitute zerbitzu batzuk eskuratzea edo urratu egiten baitituzte kolektibo jakin batzuen eskubideak.

Hasteko, Atzerritarrei buruzko Legearen baldintzek egoera irregularrean uzten dituzte pertsona asko gutxienez hiru urtez. Beste alde batetik, Ukrainako gerra diskriminazio positiborako faktore gisa aipatzen da, kolektibo bat lehenestea ekarri baitu, gainerako migratu eta errefuxiatuen kaltetan.

Emakume migratua: *“Atzerritarrei buruzko Legeak diskriminatzen du gehien. Baldintza zentzugabeak eskatzen dituzten oztopo asko daude erregularizatu ahal izateko, egoera irregularrean dauden pertsonak egotea interesatzen zaielako. Hiru urtez egoera irregularrean egotera behartzen zaituzte”.*

Emakume teknikaria: *“Ukrainarrei alfombra gorria jarri die administrazio publikoak. Egun bakarrean eman die Gizarte Segurantzako zenbakia, eta gu, bitartean, zoratu egiten gara haienzako zenbaki hori lortzeko”.*

Discriminación institucional

Los poderes y las administraciones públicas son, en ocasiones, agentes discriminadores a través de leyes, procedimientos y actitudes que dificultan el acceso o vulneran los derechos de ciertos colectivos.

Para empezar, los requisitos de la propia Ley de Extranjería dejan a muchas personas en situación irregular durante, al menos, tres años. Por otra parte, se habla de la guerra de Ucrania como un factor de discriminación positiva que ha priorizado a un colectivo en detrimento del resto de personas migradas y refugiadas.

Mujer migrada: *“La [ley] de extranjería la que más [discrimina]. Todas esas barreras en las que te piden requisitos absurdos para poder regularizarte, porque les interesa que siga habiendo personas en situación irregular. Te obligan a estar tres años en situación irregular”.*

Mujer técnica: *“A las personas ucranianas la administración pública les ha puesto la alfombra roja. Les ha facilitado el número de la seguridad social en un día, cuando nosotros estamos buscando todas las triquiñuelas para conseguirles ese número”.*

Diskriminazio instituzionalari dagokionez gehien errepikatu diren egoerak funtzionarioen jarrerekin eta lan egiteko moduekin lotuta egon dira. Esparru horretan gehien errepikatzen den gaietako bat **Estatuko segurtasun-indarrekin** bizi izandako diskriminazio-egoerak izan dira. Autobus- eta tren-geltokietan arraza-profilaren arabera jendea gelditzea eta identifikatzea, jendeak kalean dituen bizilekuak hustea edota zenbait kolektibotako (magrebtarrak, esaterako) pertsonak atxilotzea ohiko ekintzak izaten dira eta normalizatu ere egin dira.

Gizon teknikaria: "Logroñon, gelditzen den autobus bakoitzean sartzen da polizia. Eta mundu guztiari begiratzen dio. Eta kanpotarra dela ematen duenari dokumentazioa eskatzen diote, eta, bizileku-baimenik ez badu, kanporatzeko espedientea!".

Emakume teknikaria: "Bilboko jaiak hasi baino hamar egun lehenago, hiria garbitu-edo egin zuten. Pertsona guztiak, batez ere kalean bizi ziren etorkinak, bota egin zituzten; txabolak eraitsi, arropa kendu, dena zakarretara bota eta kito".

Emakume migratua: "Haiek [gazteek] ongi ikasia dute. Zera galdetzen badiezu:
- Zergatik egon zara ziegan? - Mairua (gazteleeraz "moro") naizelako.
- Nola?
- Bada, guk, azkenean, badakigu hortik pasatuko garela".

Las situaciones de discriminación institucional que más se repitieron fueron las relacionadas con las actitudes y formas de trabajo del funcionariado. Uno de los temas más recurrentes en este ámbito fueron las situaciones de discriminación vividas con los **cuerpos y fuerzas de seguridad del Estado**. Las paradas e identificaciones por perfil racial en estaciones de autobús y tren, el desalojo de zonas donde la gente vive en la calle o las detenciones de personas de ciertos colectivos, como el magrebí, son acciones habituales e incluso que se han normalizado.

Hombre técnico: "En Logroño, autobús que para, autobús que sube la policía. Y van mirando. Y al que tiene rasgos de fuera, le piden la documentación, si no tienen permiso de residencia, iexpediente de expulsión!".

Mujer técnica: "Diez días antes de fiestas de Bilbo, lo que hicieron fue como limpiar la ciudad. Todas las personas, sobre todo emigrantes que estaban en situación de calle, cogerles todas las chabolas, toda la ropa, tirarlas a la basura y fuera".

Mujer técnica: "Ellos [los jóvenes] lo tienen muy aprendido. Les preguntas:
- ¿Por qué has estado en el calabozo?
- Por qué soy moro.
- ¿Cómo?
- No, es que nosotros al final ya sabemos que vamos a pasar por esto".

Emakume migratua: *“Jende askok egiten dio aurre poliziari, batez ere dominikar gizonek. [Polizia] hurbildu eta dokumentazioa eskatzen dienean, dokumenturik ez badute, burua makurtzea besterik ez zaie gelditzen, baina dokumentazioa badute, orduan planto egiten diote”.*

Polizia-etxeetan agintekeriazko egoerak ematen direla kontatzen da, hala nola asilo-eskaera egitean errespetu-faltak izatea, eskatzaileen kontakizuna zalantzan jartzea, irainak, iseka egitea, beren eginkizunen neurria gainditzea edota informazio okerra ematea.

Emakume migratua: *“Orduan nahiko jarrera zakarra izan zuen, gaizkilea balitz bezala hitz egiten baitzion”.*

Emakume teknikaria: *“Bada, berak [ertzainak] ez zien otoitz egiten uzten. Edo otoitz egiteko oinak eta aurpegia garbitzera joaten zirenean zera esaten zien, “ea, mairu puta hori. Azkar!”. Horrelako iruzkinak”.*

Emakume teknikaria: *“Eta esan zioten iruzur egiten ari zitzaizkiola eta CEARen gezurretan ari ginela eta berak ez zuela ezer. Hark ondo baino hobeto zekien arren [asilo-]jizapidea irekita zegoela”.*

Mujer migrada: *“Hay mucha gente que se ha enfrentado con la policía, sobre todo los hombres dominicanos. Cuando va [la policía] y le pide la documentación, si no la tienen no hay otra que agachar las orejas, pero si tienen la documentación se les plantan”.*

Dentro de las instalaciones policiales se relatan situaciones de abusos de autoridad como puede ser las faltas de respeto a la hora de hacer la solicitud de asilo, poner en duda su relato, insultos, vejaciones, extralimitarse en sus funciones o dar informaciones erróneas.

Mujer migrada: *“Entonces fue una actitud bastante grosera, hablándole como si fuera un delincuente”.*

Mujer técnica: *“Pues él [ertzaina] no dejarles rezar. Al ir a limpiarse los pies o la cara para rezar, decirle ‘venga, puto moro. ¡Rápido!’. Ese tipo de comentarios”.*

Mujer técnica: *“Y lo que le manifestaron fue que le estaban estafando y que en CEAR le estábamos mintiendo y que no tenía absolutamente nada. Cuando ella sabía perfectamente que el trámite [de asilo] estaba abierto”.*

Gizon teknikaria: "Lehen egunean kide batek kontatu zidan pertsona batek nazioarteko babesa eskatuko duela eta ez diotela eskaera onartzen [poliziak], oinarririk ez omen duelako. Eta nik diot: baina ez duzu zuk esan behar oinarririk duen ala ez!"

Gizon migratua: "[Berritzeko] ekarri behar zituen paperei buruz galdetu zuenean [atzeritarren bulegoan], dokumentazio mordo eskatu zioten, eta dirudenez Senegalgo originalak izan behar ziren, zigilatuta. [...] Paper guztiekin itzuli zenean, mutilak esan zion hori guztia ez zela beharrezkoa".

Era berean, nabarmendu behar da oso zaila dela Polizia Nazionalean hitzordua lortzea baimenak eskatu eta berritzeko edo asilo-prozedura hasteko. Hitzordua lortzeko ezintasunak babesgabatasun-egoeran uzten du jendea, dena atzeratzen delako, eta horrek eskubideak galtzea eragin dezake.

Emakume migratua: "Txartela berritu behar duzunean, bederatzi hilabetetan amaitzen baita epea, hitzordua eskatu behar duzu. Bada, hemen, Gipuzkoan, Donostian, dagoen telefono bidezko hitzorduak ez du funtzionatzen".

Emakume teknikaria: "Polizia Nazionalak ez du hitzordurik ematen. Jendea ezin da asilo-programan sartu hitzordurik ez duelako".

Hombre técnico: "Me contaba una compañera el otro día que una persona va a pedir protección internacional y no le admiten la solicitud [la policía] diciendo que no tiene fundamento. Y digo yo: ¡pero si tú no eres quien debe decir si tiene fundamento o no!"

Hombre migrado: "Cuando preguntó [en extranjería] sobre los papeles que tenía que traer [para renovar] le pidieron un montón de documentación y que debían ser los originales de Senegal sellados. [...] Cuando volvieron con todos los papeles el chico les dijo que todo eso no hacía falta".

También destaca la dificultad de conseguir cita para la solicitud y renovación de permisos o para iniciar el procedimiento de asilo en la policía nacional. La imposibilidad de conseguir esta cita deja a las personas en una situación de desprotección, a través de retrasos, que pueden ocasionar la pérdida de derechos.

Mujer migrada: "Cuando tienes que renovar la tarjeta, que se te vence al noveno mes, debes solicitar una cita. Pues ya la cita telefónica aquí en Gipuzkoa, Donostia, no funciona".

Mujer técnica: "La Policía Nacional no da citas. La gente no puede entrar en el programa de asilo porque no tiene la cita".

Gizon teknikaria: *“Gaur egun hitzordua lortzea oso zaila da. Kasu asko daude Arartekoarenean, ez bakarrik hemen, Bizkaian, baita probintzia askotan ere, eta ez dira ebazten”.*

Bestalde, instituzioen artean, **osasan-zerbitzuetan** ere (Osakidetza) antzeman da diskriminazioa gertatzen dela. Horrekin lotuta hainbat diskriminazio-egoera gertatzen dira, besteak beste arreta medikoa ematean jokamolde desegokia, osasan-txartela eskatzeko zailtasunak edo hitzordua eskatzeko arazoak. Baina gehien nabarmentzen dena da arreta eman nahi ez izatea jatorrizko herrialdean sortutako patologiak tratatzeko, edo horretarako zailtasunak jartzea.

Emakume migratua: *“Belaunean mina dut aspalditik, duela hiru urte nire herrialdean egon nintzenetik. Hark [medikuak] galdetu zidan:- Zenbat denbora daramazu belauneko minarekin?
- Luze.
- Zenbat?
- Bizpahiru urte, esango nuke.
- Nola? Bizpahiru urte? Zure herrialdean ez zara ospitalera joan eta orain hona zatoz.
Shock egoeran geratu nintzen”.*

Emakume teknikaria: *“Medikuen arreta hobea edo okerragoa izan daiteke, baina normalean egoera hauetako bat ematen da: seguruenik pertsona joan egingo dela pentsatzen dutenez, ez diote azterketa espezializatuari ekiten edo, bestela, ez dakitenez jatorrizko herrialdean zer botika eman dioten edo botika horiek ez direnez hemen erabiltzen, nahiago izaten dute tratamendurik ez ematea”.*

Hombre técnico: *“Obtener hoy en día una cita es complejísimo. Hay montones de casos en el defensor del pueblo, no solo aquí en Bizkaia sino en muchas provincias, y no se resuelven”.*

Otra de las instituciones donde se han identificado situaciones de discriminación son los **servicios de salud** (Osakidetza). En este caso hay varias situaciones como malos modos en las atenciones médicas, dificultades para solicitar la tarjeta sanitaria o problemas a la hora de conseguir citas. Pero la que más destaca es no querer atender o poner dificultades por tratar patologías originadas en su país de origen.

Mujer migrada: *“Tengo dolor en la rodilla desde hace mucho tiempo, desde que estuve en mi país hace tres años. Ella [la doctora] me pregunta:
- ¿Cuánto tiempo llevas con dolor de rodilla?
- Mucho tiempo
- ¿Cuánto?
- Yo creo que dos o tres años
- ¿Cómo? ¿Dos o tres años? Tu no vas al hospital en tu país y ahora vienes aquí. Yo me quedé en shock con esto”.*

Mujer técnica: *“La atención con los médicos puede ser mejor o peor, pero lo normal son dos situaciones: como probablemente piensan que la persona se va a ir no inician una revisión especializada, o como no saben que le han dado en su país y esos medicamentos no se manejan aquí no se meten a tratar eso”.*

Erroldatzea ezinbesteko baldintza da hainbat eskubide sozial eskuratzeko, hala nola diru-laguntzak, osasuna eta abar. Erregistratze administratibo hori udalek kudeatzen dute, bakoitzak modu batera egiten du, eta horregatik desberdintasunak sortzen dira udal batetik bestera.

Emakume migratua: *“Orduan, erroldatze-bulegoko andreak jatorrizkoa [asiloa eskatzeko gutuna] ematea nahi zuen, baina poliziak du jatorrizkoa. Beraz, ez semea ez ni, ezin izan gara erroldatu, hark pasaportea indarrean izan arren nik iraungita dudalako”.*

Emakume migratua: *“Beka eskatzeko taldeko papera [erroldatze-egiaztagiria] behar dut, eta bertan esaten du nire egungo bikotekidearekin eta haren seme-alabekin bizi naizela. Baina nire semearen aitak ere sinatu behar du, eta non dagoen ideiarik ere ez dut, eta nire bikotekidearen neska ohiak ere bai, elkarrekin seme-alabak dituztelako. Erokeria galanta. Nire semeari lanerako bat [erroldatze-agiria] eskatzen badiote, denok sinatu behar dugu berriro”.*

Gizon migratua: *“Gogoan dut herri bateko udaletxean kopiekin bakarrik erregistratu gintuztela, jatorrizkoaren beharrik gabe. Eta gauza bera gertatu da osasun-zentroan ere, osasun-txartela eta guzti egin digute”.*

El empadronamiento es un requisito imprescindible para acceder a diferentes derechos sociales como ayudas, sanidad, etc. Este registro administrativo es gestionado por los ayuntamientos y cada uno de ellos procede de forma diferente, lo que origina situaciones que cambian de un ayuntamiento a otro.

Mujer migrada: *“Entonces la señora del empadronamiento quería que yo le diera el original [carta de petición de asilo], cuando el original lo tiene la policía. Entonces no nos pudimos empadronar ni el niño ni yo, porque aunque él tenga el pasaporte en vigor yo lo tengo vencido”.*

Mujer migrada: *“Para solicitar la beca necesito el papel grupal [justificante de empadronamiento], en el que aparece que resido con mi actual pareja y sus hijos. Pero también tenía que firmar el padre de mi hijo, que no tengo ni idea dónde está, y la ex de mi pareja, porque tienen hijos en común. Una locura. Si a mi hijo le piden uno [empadronamiento] para el trabajo tenemos que volver a firmar todos”.*

Hombre migrado: *“Recuerdo que en el ayuntamiento de un pueblo nos registraron solo con las copias, sin el original sin nada. Y ha pasado lo mismo en el centro de salud, nos han hecho tarjeta sanitaria y todo”.*

Horiez gain, **Lanbide** eta **ikastetxeak** ere aipatu dira, nahiz eta instituzio horietan ez dugun gertaera diskriminatzaile askorik erregistratu. Lehenengo kasuan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzeko epeekin izan du harremana gertaerak, eta bigarreanean, adingabe bat matrikulatzeko oztopoekin.

Emakume teknikaria: *“Emakumea hiru aldiz joan da gutun horrekin DSBE eskatzera. Nik ekainaren 23a azpimarratu nuen gutun horretan, Lanbiden erakuts zezan, eta Lanbidekoak ezetz esaten jarraitzen du, azaroan eskatu behar duela. Baina Lanbiden ez zioten ezer ematen adierazten zuenik hitzordua azaroan eskatu behar zuela, eta gutunak, berriz, berariaz zioen laguntza ekainetik zuela etenda. Berarekin joan behar izan nuen, eta orduan dena eman eta azaldu zioten”.*

Emakume teknikaria: *“Aurreko batean ikastetxera deitu nuen [adingabe bat eskolatzeko]. Istorio osoa kontatzen hasi nintzen eta orduan trabak jartzen hasi ziren. Esan zidaten zuzendaritza-taldeak bakarrik har zezakeela horren ardura eta ordu horretan dagoeneko ez zegoela. Gezurra! Zuzendaritza-taldeak ez du ezer egin behar matrikula hartzen duena administraria delako”.*

Interesgarria da diskriminazioa larriagotzen duten egoera batzuk nabarmentzea, baita zenbaitek etekin ekonomikoa ateratzea ahalbidetzen duten egoerak ere. Alde batetik, zerbitzu publiko batzuek aldibereko interpretazio-sistema dute baina beti ez dute erabiltzeko prestutasuna izaten. Beste alde batetik, pertsona guztiek ez dituzte online izapideak egiteko gailu egokiak edo trebetasun teknologiko nahikoak izaten. Horrek eragiten du pertsona batzuek bitartekari gisa jardutea, ordain ekonomikoaren truke, administrazioak erraztu beharko lituzkeen kudeaketak egiteko.

Aunque no son instituciones sobre las que hayamos registrado un gran número de vivencias discriminatorias, se nombran también a **Lanbide y a centros educativos**. En el primer caso en relación con los plazos a la hora de percibir la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y en el segundo sobre trabas a la hora de matricular a una menor.

Mujer técnica: *“Ha ido la mujer tres veces a pedir la RGI con esa carta, en la que yo subrayé 23 de junio para que lo enseñase en Lanbide, y la de Lanbide le sigue diciendo que no, que la tiene que pedir en noviembre. Desde Lanbide no le entregaban nada que pusiese que tenía que pedir la cita en noviembre, mientras que la carta decía específicamente que lo tiene cortado desde junio. Tuve que ir con ella, y entonces le dieron y le explicaron todo”.*

Mujer técnica: *“El otro día llamaba al centro [para escolarizar a una menor]. Empiezo a contar toda la historia, y entonces noto que empiezan a poner trabas. Me dicen que esto solo lo pueden atender desde el equipo directivo y a esta hora ya no está. ¡Mentira! El equipo directivo no tiene que hacer nada porque es el administrativo que te coge la matrícula.”*

Es interesante destacar algunas situaciones que agravan estas discriminaciones e, incluso, posibilitan que algunas personas saquen rendimiento económico. Por un lado, algunos servicios públicos disponen de un sistema de traducción simultánea pero no siempre tienen la disposición a usarlo. Por otro, no todas las personas tienen los dispositivos adecuados y/o habilidades tecnológicas suficientes para acceder a los trámites online. Esto facilita que algunas personas actúen como intermediarias, bajo contraprestación económica, en la realización de gestiones que la administración debería facilitar.

Emakume migratua: "Hark [osasan-langileak] dio arazoak dituela itzulpen-aparatuarekin. Batzuetan itzulpen-aparatua erabiltzea behar izaten dut, baina haiek ez dute aktibatzen".


Gizon teknikaria: "Pandemiarekin gauza asko aldatu da eta horrek guztioi eragiten digu. Izapideak elektronikoki egitea sistematizatu egin da eta orain arreta ez-pertsonala ematea lehenesten da. Pertsona askorekin arrakala digitala dagoenean, arazo gehiago izaten dira".

Emakume teknikaria: "Pertsona horiek ez dute erantzun egokirik jaso administrazio publikoan eta aholkulari pribatuak horren jakitun dira, horregatik egoeraz baliatu eta kobratu egiten diete administrazio publikoak egin edo erraztu beharko lituzkeen gauzak egiteagatik".

Mujer migrada: "Ella [la sanitaria] dice que tiene problemas con el aparato de traducción. A veces yo quiero que usen el aparato de traducción, pero ellos no lo activan".

Hombre técnico: "Nos hemos instalado con la pandemia, eso nos afecta a todos. Se han sistematizado los trámites de manera electrónica, buscando una atención no personal. Cuando hay una brecha digital con las personas, hay más problemas".

Mujer técnica: "Esas personas no se han encontrado una buena respuesta en la administración pública y asesores privados lo saben, se aprovechan y les cobran por hacer cosas que debería hacer o facilitar la administración pública".



Pertsonen arteko diskriminazioa

Ekintza diskriminatzaile gehienak Estatu ez diren agenteek egiten dituzte, eta horietako asko eguneroko bizitzako espazioetan edo bizitza pribatuan gertatzen dira. Diskriminazio horiek hain dira zabalak, ezen neurri eta kasuistika ugari barnebiltzen baitituzte. Osatutako eztabaida-taldeen bidez pisu handiko zenbait egoera identifikatu ziren, duten garrantziagatik edo maiztasunagatik.

Diskriminazio-egoera gehien identifikatu den gunetako bat **lanaren arloa** da. Esparru horretan diskriminazio-mota asko egoten dira, hasteko, sarritan kontratatzeke unean tratatutako desberdina ematen delako, eta profil batzuk kanpoan geratzen direlako. Lanean, halaber, gehiegizko zaintza edo nolabaiteko tratu berezia ematea gerta daiteke. Beste alderdietako bat arrazializatutako pertsonen kolektiboa ikusezin bihurtzea izaten da, jendaurrekoak ez diren sektore edo lanpostuetara mugatzean.

Emakume migratua: *“Ez dute [atzeritarrik] nahi. Oro har, ez afrikarrik, ez beltzik, ez zapia daraman emakumerik”.*

Emakume migratua: *“Hemengo supermerkatuan gertatu zen bezala [...]. Dirudenez, neska baten senideak edo ezagunak sartu ziren eta bi segundoz agurtu zuten. Orduan [nagusiek] ez zioten begiratzeari utzi. Zer pentsatuko zuten? Zerbait gertatuko zitzaieela? Ez zuten alde egin, harik eta neska bere jendearengandik aldentu zen arte”.*

Discriminación entre personas

Gran parte de los actos discriminatorios se realizan por agentes no estatales y muchos de ellos en espacios cotidianos o a puerta cerrada. Estas discriminaciones son tan amplias que terminan abarcando multitud de dimensiones y casuísticas. A través de los grupos de discusión realizados se identificaron una serie de situaciones que, bien por su trascendencia o asiduidad, cobran una gran importancia.

Uno de los espacios donde más situaciones de discriminación se han identificado es en **el entorno laboral**. En esta esfera el tipo de discriminaciones son muy diversas y empiezan por un trato desigual en el momento de la contratación, donde hay perfiles que quedan excluidos. También durante el trabajo se dan casos de vigilancia excesiva o trato diferenciado. Otro de los aspectos es la invisibilización del colectivo de personas racializadas, desplazándolas a sectores o puestos que no están cara al público.

Mujer migrada: *“No quieren [personas extranjeras]. Generalmente ni africanos, ni negros, ni mujeres que llevan pañuelo”.*

Mujer migrada: *“Como en el supermercado de aquí [...]. Se ve que entraron familiares o conocidos y saludaron dos segundos a una chica. Entonces [los jefes] no le quitaban los ojos de encima. ¿Qué estarán pensando? ¿Que les va a pasar alguna cosa? No se fue, hasta que se apartó de su propia gente”.*

Emakume migratua: *"Nagusia iristean, jende asko berandu iritsi dela konturatzen denean, ez die ezer esaten. Baina berandu iritsi dena atzerritarra bada, paperduna edo paperik gabea, orduan bai, hari errieta egiten dio, hari bai hartzen dio kargu".*

Emakume migratua: *"Hor [taberna eta jatetxeetan] ez zuten marokoarrak nahi zerbitzari"*

Gizon teknikaria: *"Postu horretan [gela-zerbitzari] afrikar gehiago ikusiko duzu, jendearentzako arreta-postu batean baino".*

Eztabaida-taldeetan maiz adierazi dira lan-esplotazioko bizipenak, migratuek eta errefuxiatuek beren eskubideak aldarrikatu eta defendatzeko duten beldurrak indartuta, bereziki lan-baimenik ez dutenean. Errepresaliak eta mehatxuak jasateko beldurrak erraztu egiten du pertsona horien eskubideak urratzea.

Emakume migratua: *"Paperik ez duen etxeko langile bati esatea ez zekitela oporrek zituenik".*

Mujer migrada: *"Cuando llega el jefe y se da cuenta de que hay gente que ha entrado tarde no les dice nada. Pero si la persona que viene tarde es extranjera, con o sin papeles, a ella sí le echan la bronca, a ella sí le llaman la atención".*

Mujer migrada: *"Ahí [en bares y restaurantes] no querían marroquíes sirviendo".*

Hombre técnico: *"Verás más africanos en ese puesto [camarero de pisos], que en un puesto de atención de cara al público".*

En los grupos de discusión se manifestaron con frecuencia vivencias de explotación laboral, reforzadas por el miedo que tienen las personas migradas y refugiadas a la hora de reivindicar y defender sus derechos, especialmente cuando no tienen permiso de trabajo. De este modo el temor a las represalias y las amenazas se convierte en un caldo de cultivo que facilita la vulneración de los derechos.

Mujer migrada: *"A una trabajadora del hogar, sin papeles, decirle que no sabían que tenía vacaciones".*

Gizon migratuta: *“Agian hiru hilabetez lan egiten duzu eta Gizarte Segurantzako bi bakarrik ordaintzen dizkizute. Edo hilaren 1ean hasten zara lanean eta 5etik aurrera sartzen zaituzte Gizarte Segurantzán. Baina atzerritarra zarenez, zuk kobratu egiten duzu eta [antza] ez zara gauza horietaz arduratzen”.*

Gizon teknikaria: *“Mehatxua: zu kanporatzea eragingo dut, edo kartzelaraztea, edo baimena kentzea... Ohikoa izaten da”.*

Emakume teknikaria: *“Lanean ari zen eta kaleratu egin dute; kaleratze objektibo edo bidezkoa izan dela esaten saiatu dira, baina ez da inola ere horrela izan. Asko ez dira ausartzen sindikatu batengana jotzera edo salaketa egitera, beldur handia baitiote epaiketa batean sartzeari, nahiz eta beren eskubideen alde borrokatzeagatik izan”.*

Lan-eremuan, arreta berezia merezi dute emakumeek eta LGBTIQ+ komunitateak jasaten dituzten diskriminazio-modu espezifikoek. Emakumeei dagokienez, ikus daiteke sektore feminizatuetako eta zaintza-sektoreetako lanak esleitzen zaizkiela, eta sektore horietan haien lan-eskubideak ez direla errespetatzen, etxeko zerbitzuan gertatzen den bezala. Gainera, beloa erabiltzen duten emakumeek zailtasun handiak izaten dituzte lan-merkatura sartzeko eta jendearekin kontaktua izatea eskatzen duten lanak egiteko.

Hombre migrado: *“Igual trabajas tres meses y solo te pagan dos de la seguridad social. O igual empiezas el día 1 a trabajar y te meten en la seguridad social el día 5. Pero como eres extranjero, tú cobras y [se supone que] no te preocupas de estas cosas”.*

Hombre técnico: *“La amenaza: voy a hacer que te expulsen, o voy a hacer que te metan en la cárcel, o voy hacer que te quiten el permiso... Suele ser bastante habitual.”*

Mujer técnica: *“Estaba trabajando y ha habido un despido que lo han intentado colar como un despido objetivo o un despido procedente, y no lo ha sido en absoluto. Las personas tienen miedo de acudir a un sindicato o de denunciar, porque tienen mucho miedo de verse metidas en un juicio, aunque sea por luchar por sus derechos”.*

Dentro del ámbito laboral, es relevante mencionar las formas específicas de discriminación que experimentan las mujeres y la comunidad LGBTIQ+. Respecto a las mujeres, se puede observar que son asignadas a trabajos en sectores feminizados y de cuidados, en los que sus derechos laborales no son respetados, tal como ocurre en el servicio doméstico. Además, se destaca la dificultad que enfrentan las mujeres con velo para acceder al mercado laboral o para realizar trabajos que impliquen contacto con el público.

Emakume teknikaria: "Etxeko zerbitzua bereziki feminizatuta dago, eta askotan ez dira errespetatzen lan, atseden eta bestelako eskubideak".

Emakume migratua: "Belo aipatzen dut kasu bat ezagutzen dudalako. Jende hori ia ezin da lan-merkatuan sartu. Azalaren kolorea bezalakoa da, baina azkenean beltzek lan egiten dute".

Emakume teknikaria: "Nik ikusten dut pixka bat hobetu dela beloaren gaia. Ez dakit antzeman duzuen. Orain ez digute hainbestetan kontatzen beloagatik diskriminatu dituztela. [...] Batek farmazia bat garbitzen lan egiten du. Baina egia da ez dutela jendaurrean lan egiten".

Bestalde, LGBTIQ+ kolektiboak oso sektore zehatzetan espezializatu behar izaten du, hala nola estetika-zerbitzuetan edo ostalaritzan; bestela, sexu-orientazioa ezkutatu behar izaten du. Transexualekiko diskriminazio handia ere aipatzen da.

Emakume teknikaria: "Diskriminazio handia egiten zaio LGTB kolektiboari, baina lekua egiten ari zaio irudi pertsonalaren sektorean, estetikan, azazkaletan, ile-apainketa eta abarretan".

Emakume teknikaria: "Eta bai, egia da gizon gayak agian gehiago aritzen direla ostalaritzan".

Mujer técnica: "En el servicio doméstico, que está super feminizado, no se respetan muchas veces por todos los derechos laborales, de descanso y demás".

Mujer migrada: "Digo velo porque conozco un caso. Esa gente no puede prácticamente ingresar en el mercado laboral. Es como el color, pero al final la gente negra trabaja".

Mujer técnica: "Yo lo que sí que veo que ha mejorado un poco es el tema del velo. No sé si lo habéis observado. Ya no nos cuentan tanta discriminación por el velo. [...] Una está trabajando en limpieza de una farmacia. Sí que es verdad que no trabajan cara al público".

Por su parte, el colectivo LGBTIQ+ se ve obligado a especializarse en sectores muy concretos, como el de la imagen personal o la hostelería, o a ocultar su orientación sexual. También se habla de una fuerte discriminación hacia transexuales.

Mujer técnica: "Hay bastante discriminación con el motivo LGTB, pero sí se le está dando cabida en el sector en el de imagen personal, estética, uñas, peluquería...".

Mujer técnica: "Y sí que es verdad que los hombres gays igual se dedican más a la hostelería".

Emakume teknikaria: "Emakume lesbiana migratuek ez dute beren burua lesbiana gisa agertzen, ez dizute hain erraz esango".

Emakume teknikaria: "Pertsona transexual batekin bai [badago diskriminazioa]. Hasteko, haren izena idazteko orduan, nola erregistratuko duzu? Nola nahi du deitzea? Esertzen den lehen unetik heltzen diozu gaiari".

Etxebizitza eskuratzea pertsona guztiei eragiten dien auzia da, baina are larriagoa da zenbait kolektiborentzat, hala nola migratuentzat eta errefuxiatuentzat. Sarritan, higiezin-agentziek eta norbanakoek diskriminatu egiten dituzte pertsona horiek eta uko egiten diote etxebizitzak erakusteari, horretarako aitzakia faltsuak erabiliz, adibidez, pisua dagoeneko alokatu dutela.

Emakume migratua: "Hark [emakume arabiar batek] dio higiezin agentziek ez diotela pisurik alokatu nahi".

Emakume migratua: "Galdetu zidan lehen gauza izan zen ea nongoa zen neska hura".

Gizon migratua: "Zera esaten dute:
Nongoa zara?
- Marrokoa.
Orduan ez dute alokatu nahi izaten eta iraindu egiten zaituzte".

Mujer técnica: "Las mujeres lesbianas migrantes, no se posicionan como lesbianas, no te lo van a decir tan fácilmente".

Mujer técnica: "Con una persona transexual sí [hay discriminación]. Porque ya solo a la hora de poner su nombre, ¿cómo le registras? ¿Cómo quiere que le llames? Ahí lo abordas desde el primer momento que se sienta".

El **acceso a la vivienda** es un problema que afecta a toda la población, pero que es aún más grave para ciertos grupos como el de las personas migradas y refugiadas. A menudo, tanto agencias inmobiliarias como particulares discriminan a estas personas y se niegan a mostrarles viviendas con excusas falsas, como afirmar que ya han sido alquiladas.

Mujer migrada: "Ella [mujer árabe] dice que las inmobiliarias no quieren alquilarle".

Mujer migrada: "Lo primero que me preguntó fue de dónde era la chica".

Hombre migrado: "Cuando dicen:
- ¿De dónde eres?
- Marroquí.
Entonces no quieren alquilar y te insultan".

Emakume migratua: *Zure azentua entzuten dutenean, etxebizitza dagoeneko alokatu dutela esaten dizute, ez dagoela eskuragarri. Hori izaten da ohiko erantzuna.*

Emakume teknikaria: *“Emakume errusiar batek eta emakume koloniar batek osatutako bikotea da. Eta zailtasun asko izaten ari dira pisua alokatzeko, bikote izateagatik.”*

Pisua bisitatzeko lehen erronka gainditu ondoren, ia lortu ezin diren baldintzak izaten dira hurrengo erronka handia, hala nola 6 hilabete arteko fidantza eskatzea, ez ordaintzeagatiko aseguruak galdegitea edota DSBE edo bestelako laguntza egonkorrak diru-sarrera iturri fidagarritzat ez hartzea.

Emakume migratua: *“Alokatzeko, sei hilabeteko fidantza. Nork du hori ordaintzeko beste?”*

Emakume teknikaria: *“Badira [alokairuko] kontratu batzuk nomina eskatzen dutenak, edo ez ordaintzeagatiko aseguruak, eta hain hesi altua jartzen dutenak, ezen ezinezkoa baita jendeak etxebizitza aurkitzea eta, azkenean, etxebizitza horietan [infraetxeetan] bizitzen amaitzen baitu.”*

Mujer migrada: *“Cuando te escuchan el acento te dicen que se alquiló el piso, que el piso ya no está más disponible. Esa es la contestación más normal.”*

Mujer técnica: *“Es una pareja de una mujer rusa y una mujer colombiana. Y están teniendo muchas dificultades para conseguir alquiler por ser pareja.”*

Una vez que se supera la barrera de la visita del piso, la siguiente es la imposición de condiciones prácticamente inalcanzables, como exigir hasta 6 meses de fianza, seguros de impago o no valorar la RGI u otras ayudas estables como una fuente fiable de ingresos.

Mujer migrada: *“Para alquilar, seis meses de fianza. ¿Quién tiene seis meses de fianza?”*

Mujer técnica: *“Hay contratos [de alquiler] que exigen nóminas, seguros de impago, cosas que te ponen un muro tan alto que es imposible que la gente encuentre vivienda y terminan abocados a vivir pues en esos pisos [de infravivienda].”*

Emakume migratua: *"Nik gizarte-langilearekin hitz egiten dut. Gizarte-langileak esaten die badudala dirua etxea alokatzeko, baina hala ere ez dute nahi izaten".*

Emakume teknikaria: *"[Etxea] ikustera joan ginen eta emakumeari asko gustatu zitzaion. Eta zera esan zuten, ados, baina ez ordaintzeagatiko aseguru a egin behar zela. Baina DSBEk ez du balio ez ordaintzeagatiko aseguru gisa".*

Emakume teknikaria: *"Jendeak ez die etxerik alokatu nahi diru-laguntzen mende dauden pertsonen".*

Azkenean, etxebizitza alokatzea lortzen denean, jende askok kontatzen du pisuak egoera txarrean egoten direla, errenta altuak izaten dituztela edo ez dutela erroldatzeko aukerarik eskaintzen.

Gizon migratuta: *"Batzuk gure egoeraz baliatzen dira baldintza txarretan dauden etxebizitzak oso prezio altuan alokatzeko".*

Emakume migratua: *"400 euro ordaintzen dute, hemen, alde zaharrean, egoera txarrean dauden etxeetan bizitzeko eta kontraturik gabe, noski". Beraz, askotan ezin izaten dira erroldatu. Eta DSBEk ere ez du horretan laguntzen, ez baitu kontratu bat izateak suposatzen duen oinarritzko baldintza betetzen".*

Mujer migrada: *"Yo hablo con la trabajadora social. La trabajadora social les dice que dispongo de dinero para alquilar la casa, pero aun así no quieren".*

Mujer técnica: *"Fuimos a ver [la casa] y a ella le gustó mucho. Y dijeron vale, pero que se necesita seguro de impagos. Pero la RGI no sirve como seguro de impagos".*

Mujer técnica: *"La gente no quiere alquilar casas a personas que dependen de ayudas".*

Cuando, por fin, se consigue alquilar una vivienda, los testimonios nos hablan de pisos en malas condiciones, con rentas altas o sin acceso al empadronamiento.

Hombre migrado: *"Hay gente que se aprovecha de nuestra situación para alquilarnos las viviendas en malas condiciones a precio muy alto".*

Mujer migrada: *"Pagan 400 euros, aquí, en la parte vieja, con casas en mal estado y sin contrato, claro. Con lo cual no se pueden empadronar muchas veces. Ni hablar de sacar la RGI, porque no reúne el requisito básico que es tener un contrato".*

Bankuei dagokienez, oinarritzko ordainketa-kontua izatea Europar Batasunean bizi diren pertsonen eskubidea da. Hala ere, migratuek eta errefuxiatuek oztopoak eta zailtasunak izaten dituzte kontu bat irekitzeko, besteak beste gehiegizko dokumentazioa aurkeztu behar izatea edota mugimendurik gabeko denbora baten ondoren kontuak blokeatzea, askotan bankuentzat errentagarriak ez direlako aitzakiarekin.

Emakume migratua: *Zergatik ezin dituzte etorkinek banku-kontuak beste pertsona batzuek bezain erraz ireki, erroldatzea, frogagiria eta indarrean dagoen pasaportea aurkeztu arren?*

Emakume migratua: *"Ez zidaten kontu bat irekitzen, legeak behartzen dituen arren. [...] Irakurri eta ikertu dudanaren arabera, ulertzen dudana da haiei ez zaiela horrelakorik komeni ez diedalako diru-kopururik sortuko".*

Emakume migratua: *"Gero Tolosara joan ginen eta ireki egin ziguten [banku-kontua]. Eta gero blokeatu egin ziguten. Gero banketxe berera joan ginen mesedez eskatzera kontua berriro ireki zezaten, baldintza guztiak betetzen genituelako. Baina ez ziguten lagundu. Hau da, adarra jo ziguten, nolabait esatearren".*

Respecto a **las entidades bancarias**, tener una cuenta de pago básica es un derecho de las personas residentes en la Unión Europea. Sin embargo, las personas migradas y refugiadas enfrentan obstáculos y dificultades para abrir una, incluyendo requisitos de documentación excesiva y bloqueo de las cuentas después de un tiempo sin movimientos, a menudo con la excusa de que no son rentables para los bancos.

Mujer migrada: *"¿Por qué los inmigrantes no pueden abrir cuentas bancarias con tanta facilidad como otras personas, aun llevando el empadronamiento, tu hoja de resguardo o tu pasaporte vigente?"*

Mujer migrada: *"Ellos no me abrían una cuenta, la que la ley les obliga, como corresponde. [...] Lo que entiendo, lo que estuve leyendo e investigando, es que a ellos no les conviene porque no les voy a generar cantidades de dinero".*

Mujer migrada: *"Luego fuimos a Tolosa y nos las abrieron [la cuenta bancaria]. Y luego nos la bloquearon. Luego intentamos ir a la misma entidad bancaria para que, por favor, gestionaran la apertura porque ya cumplíamos con todo. Y no nos hicieron nada. O sea, nos pelotearon, como se dice".*

Banku-kontua izatea ezinbestekoa da gizarte-laguntzak jasotzeko, eta laguntza horien onuradun dira migratutako eta errefuxiatutako pertsona batzuk. Laguntza horiek emateko, beharrezkoa da banku-transferentzia jasotzen duen kontuaren titularra izatea pertsona hartzailea. Halaber, beste mota batzuetako ordainketak egiteko ere (adibidez, matrikulak edo eskola-jantokiak ordaintzeko) helbideratze edo transferentzia bidez egitea derrigorrezkoa izaten da. Kontu horiek blokeatzea edo ezin irekitzea diskriminazio bihurtzen da, eta zaildu egiten du migratuen eta errefuxiatuen eskubideak bermatzea.

Gizon teknikaria: *"Bankuak kontua blokeatu zion mutil baten kasua dut, baina ez zuelako inolako diru-sarrerarik. Eta GLLak [Gizarte Larrialdietarako Laguntzak] ordaintzera joan zitzaizkionean, GLLak jasotzen ari zela frogatzen zuen agiria eraman behar izan zuen kontua desblokea ziezaioten".*

Emakume migratua: *"Guk ez dugu banku-konturik. Bankuarekin hitz egitera joan nintzen, kontua zabal ziezadaten eskatzera bakarrik eskolako jantokia ordaindu ahal izateko, txartelik gabe ez ezer. Baina Espainian bizitzeko baimena ez dudanez, ezer ez".*

Tener una cuenta bancaria resulta indispensable para percibir ayudas sociales, de las que son beneficiarias algunas personas migradas y refugiadas. Estas ayudas se abonan exclusivamente a través de transferencia bancaria a cuentas donde es titular la perceptora. También hay pagos como matrículas o comedores escolares que solamente se permiten realizar a través de domiciliación o transferencia. Impedir el acceso o bloquear estas cuentas bancarias se convierte en una discriminación que dificulta el ejercicio de los derechos de las personas migradas y refugiadas.

Hombre técnico: *"Yo tengo el caso de un chico que el banco le había bloqueado la cuenta, pero era porque no tiene ningún tipo de ingresos. Y cuando le han ido a pagar las AES [Ayudas de Emergencia Social], ha tenido que ir con el documento de que le estaban concediendo las AES para que le desbloqueen la cuenta".*

Mujer migrada: *"Nosotras no tenemos cuenta bancaria. Fui a hablar con el banco y pedir una cuenta solamente para pagar el dinero de comedor del colegio, sin tarjeta ni nada. Como no tengo residencia en España, nada".*

Lekukotza batzuen arabera, **ikastetxeetan** diskriminazio-egoerak eragiten dituzte ikasleek, irakasleek eta, batzuetan, baita gurasoen elkarrekin ere.

Emakume migratua: *"Haurrak beraiek, gazteak, muturreko bullyinga egiten saiatu ziren".*

Emakume migratua: *"Nire ilobatxoak zera entzun behar izan zuen, 'zu itsusia zara ez zarela zuria eta ilehoria'. Nola izan dezake barneratuta mezu hori lau urteko neskatxa batek? Iruzkina arrazista da".*

Emakume teknikaria: *"Noizbait guraso-elkarrekin bilera batera deitu nau esateko ez zutela nahi beren haurrek haur etorkinekin denbora pasatzea, eta asko sentitzen zutela familia horien egoeratik, baina haien balio kultural jakin batzuk gorde nahi zituztela".*

Emakume migratua: *"Haurra zaurituta iristen da eta amak eskuak lotuta ditu, kasua irakasleari azaltzen diolako, baina hark ez duenez kasua bere gain hartzen, inork ez duelako egoera konpontzeko neurririk hartzen".*

Algunos testimonios señalan a los **centros educativos** como espacios donde se producen situaciones de discriminación provocadas por el propio alumnado, el profesorado o, incluso, las asociaciones de madres y padres.

Mujer migrada: *"Los mismos niños, los jóvenes, como que trataron de hacerle bullying de manera extrema."*

Mujer migrada: *"Que mi sobrinita tenga que escuchar un comentario de 'tú eres fea porque no eres blanca y rubia'. ¿Cómo una nena de cuatro años ya tiene interiorizado este mensaje? Ese es un comentario racista."*

Mujer técnica: *"Alguna vez me convocaron [el AMPA] a una reunión para decirme que no querían que sus niños pasaran tiempo con niños inmigrantes, y que lo sentían mucho por la situación de esas familias, pero que ellos querían conservar ciertos valores culturales".*

Mujer migrada: *"El niño llega herido y la madre está con las manos atadas porque le expone el caso a la maestra, pero como que esta no toma el caso, no toma medidas".*

Emakume migratua: "Hark [irakasleak] kurtsoko gainerako ikasleekin hitz egiten duenean irribarrez hitz egiten du, poza izaten du aurpegian. Baina nirekin hitz egiten duenean aurpegi txarra jartzen du eta jarrera txarrarekin erantzuten dit. [...] Azkenean ulertu nuen nire zapia zela bere arazoa".

Emakume teknikaria: "Iruzkín arrazistak egiten dituzten irakasleak, edo pertsona bat beste leku batetik datorrenez analfabetoa dela ziurtzat jotzen dutenak".

Diskriminaziorik handiena, dena den, eguneroko **espazio informaletan** gertatzen da. Horrek, beraz, argi uzten du diskriminazioa ohikoa dela gure gizartean. Askotarikoak izaten dira lekuak, eragileak eta egoerak, baina mesfidantza- edo gutxiespen-jarrerak dira nabarmenenak; adibidez, elkarrizketarik hasi nahi ez izatea, bankuz aldatzea edo iruzkín arrazistak egitea..

Gizon migratua: "Autobusean leku asko dagoenean, inor ez da esertzen nire ondoan".

Gizon migratua: "Banku bat ikusi nuen; neska bat zegoen eserita baina lekua zegoen haren ondoan. Eseri egin nintzenean, neskak bere poltsa hartu zuen, altxatu, eta joan egin zen. [...] Zergatik ez da inor esertzen nire aldamenean? Esertzeko leku bakarra nire ondokoa denean ere ez. Jendeak ez du nahi; begiratu egiten nau, eta ez da esertzen".

Mujer migrada: "Cuando ella [la profesora] habla con los demás compañeros del curso lo hace con una sonrisa, tiene alegría en su cara. Cuando habla conmigo tiene mala cara y me responde con mala actitud, o algo así. [...] Al final entiendo que el problema de ella era mi pañuelo".

Mujer técnica: "Profesores con comentarios racistas o dando por hecho que una persona es analfabeta porque viene de otro sitio".

Pero donde más discriminaciones se producen es en los **espacios informales** del día a día. Esto demuestra que la discriminación es algo habitual en nuestra sociedad. Los lugares, los agentes y las situaciones son muy variadas, pero sobresalen las muestras de desconfianza o desprecio como no entablar conversación, cambiarse de banco o realizar comentarios racistas.

Hombre migrado: "Cuando en el bus hay mucho sitio, yo me siento pero nadie se sienta a mi lado".

Hombre migrado: "Veo un banco donde había una chica que estaba sentada, pero a su lado estaba libre. Me senté, entonces ella agarró su bolso, se levantó y se fue. [...] ¿Por qué la gente no se sienta a mi lado? No hay más sitio para sentarse, solo a mi lado. La gente no quiere, me mira y no se sienta".

Gizon migratua: *"Autobusa non hartzen den galdetu behar nuen. Galdetzeko gelditu nintzenean, ez zidaten galdetu ere egiten utzi; ez zidaten zer nahi nuen azaltzen utzi".*

Gizon migratua: *"Amona batekin egin nuen topo igogailuan. Amona izutu egin zen, biok bakarrik geundelako. Sartu zenean, igogailua heltzeko gogoz begiratzen zuen, ez baitzegoen ohituta horrelako egoeretara".*

Emakume migratua: *"Eta esan zidan:
- Nongoa zara?
- Hemengoa.
- Nola izango zara hemengoa!
- Tira, zuk diozuna.
Eta esan zidan: 'Ni bai naizela hemengoa'"*

Emakume migratua: *"Eta, ondoren, makulu-hitzak datoz: 'ez dut zuregatik esan, e!'"*

Emakume teknikaria: *"Telemarketing eremuan lanean dabiltzan erabiltzaileek diskriminazio nahikotxo pairatzen dute bezeroen aldetik azentu latino dela-eta".*

Hombre migrado: *"Necesitaba preguntar por la dirección para coger el autobús. Cuando me detuve para preguntar, no me dejaron ni preguntar, no me dejaron tratar de explicar lo que quería".*

Hombre migrado: *"Me encuentro con una abuela dentro del ascensor. Se asusta la abuela, porque somos solo dos. Cuando entra mira así, con ganas de que llegue el ascensor, porque no está acostumbrada".*

Mujer migrada: *"Y este me dice:
- ¿Y tú de dónde eres?
- De aquí.
- ¡Qué vas a ser tú de aquí!
- Pues sí tú lo dices.
Y me dice: 'Yo sí que soy de aquí'"*

Mujer migrada: *"Y luego viene la muletilla de 'ipero no lo digo por ti, eh!'"*

Mujer técnica: *"Las personas usuarias que trabajan en telemarketing sufren bastante discriminación por los clientes, por el acento latino".*

Saltokietan tratu desberdina ematen zaie maiz batzuei eta besteei. Aurretik juzgatuak izaten dira zenbait pertsona delituren bat egingo dutelakoan; beraz, gertutik zaintzen dituzte saltokietan. Horrez gain, errespeturik gabeko tratua ere salatu da hainbat kontaketatian.

Emakume migratua: *"Bueltaka ibili ginen, eta ateratzear nengoenean, zera galdetu zidan kutxazainak: 'ikus dezaket zure poltsa?' Eta baietz erantzun nion nik. Baina kontua da galdera horixe egin zidala berak. Ez dakit. Ez nembilen lapurretan".*

Gizon migratua: *"Supermerkatura sartu, eta begiak dituzu nonahi zuri begira".*

Emakume teknikaria: *"Gazteek, batzuetan, [eurek erositakoaren] faktura eskatzen dute saltokian, eta ezetz esaten diete, ezin dela eta ez dietela fakturarik emango. [...] Farmazia batekin egin genuen proba; izan ere, bi gazte joan ziren behin, eta fakturarik egingo ez zietela esan zieten. Orduan, integrazioko langilea bertaratu zen zer gertatzen zen ikusteko, eta hari, bai, eman egin zioten.*

El trato diferenciado en **los comercios** se produce de forma reiterada. Se prejuzga que se va a delinquir, lo que lleva a una estrecha vigilancia. Se relatan circunstancias en las que el trato es irrespetuoso.

Mujer migrada: *"Total que dimos vueltas por ahí y cuando voy saliendo, la cajera se para y me dice '¿puedo revisar tu bolso?' Y yo, 'sí'. Pero el hecho es que ella me haya dicho eso. No sé, no estoy robando".*

Hombre migrado: *"Cuando entras en el supermercado, son todo ojos".*

Mujer técnica: *"Hay establecimientos al que van los chavales y piden la factura [de su compra] y les dicen que no, que eso no es así y que no les dan factura. [...] Vamos a hacer la prueba con una farmacia a la que ya han ido dos chavales y les han dicho que no les hacen factura. Entonces va el integrador a ver qué pasa y se la van a dar".*



Euskal kultura bi modutan interpretatzen da: gizarte-integrazioari mesede egiten dion faktore gisa zein hura zaitzen duen faktore gisa. Batetik, espazio itxi eta diskriminatzaile gisa identifikatzen da euskal kuadrilla. Bestetik, euskarak urrundu egiten duela uste dute batzuek, eta bizikidetzari mesede egiten diola, besteek.

Gizon migratua: *"Batetik, begi onez ikusten dut kuadrillen kultura; bestetik, begi txarrez ikusten dut, oso itxiak eta klasistak direlako. Euskal Herriko jendearekin ere jokaten dute diskriminazioz".*

Emakume migratua: *"Hizkuntzan ari gara [euskaraz]. Zenbait pertsonok ez dugu hizkuntza ulertzen. Zergatik darabilte hizkuntza hori beste pertsona batzuen aurrean? Edukazio txarrekoa iruditzen zait. Eta diskriminatzeke modu bat ere badela uste dut. [...] Hots, hizkuntza batean hitz egiten tematzea, jakinda pertsona batzuek ez dutela hura hitz egiten eta ulertu egin nahi zaituztela."*

Gizon migratua: *"Nor baitengana hurbiltzen bazara, eta hitzen bat euskaraz egiten badiozu, eta beste zerbait gaztelaniaz, atea irekiko duzu pixkanaka-pixkanaka".*

La **cultura vasca** aparece con una doble interpretación: bien como factor que favorece los procesos de integración social, bien como factor que los dificulta. Por una parte, se identifica la cuadrilla vasca como un espacio hermético y discriminatorio. Por otra, hay quien considera que el euskera contribuye a distanciar mientras que otras personas lo asocian con la convivencia.

Hombre migrado: *"Hay una cultura de cuadrillas que la veo bien desde un punto de vista, pero la veo mal porque son muy cerrados y muy clasistas. Que incluso son discriminatorios con los mismos de País Vasco".*

Mujer migrada: *"Hablamos en la lengua [euskera]. Estamos varias personas que no entendemos la lengua, ¿por qué hablan en esa lengua delante de otras personas? Me parece de muy mala educación. Y eso es una forma de discriminar también. [...] O sea, insistir en hablar una lengua cuando sabes que hay personas que no lo hablan y quieren entenderte."*

Hombre migrado: *"Si te acercas a alguien y le hablas una palabra en euskera... algo en castellano, entonces estás abriendo poco a poco la puerta".*

Aisialdirako lekuetan, hala nola tabernetan, jatetxeetan, igerilekuetan, hondartzetan edo kiroldegietan, diskriminazio-egoerak gertatzen dira maiz. Bertako batzuek ez dituzte espaziook partekatu nahi, edota delinkuentziarekin lotzen dituzte migratu eta errefuxiatuak.

Gizon migratua: *"Jatetxeren batera sartzean, lehen unetik bertatik begiraten dizute. Jan aurretik ordaintzeko esaten dizute".*

Gizon migratua: *"Bizkar-zorroa daraman norbaiten ondotik igarotzean, bizkar-zorroari heltzen dio hark. Askok gertatzen da hondartzan, batez ere marokoarrekin".*

Gizon migratua: *"Hemen, inauterietan, jendez lepo dagoenean, polizia etortzen da, eta beti geratzen dituzte latinoamerikarrak eta marokoarrak. Latinoamerikarra edo marokoarra baldin bazara, paretaren aurka [miazteko] jartzen zaituzte inauteri-astean".*

Emakume migratua: *"Amaren lankide batek, Euskal Herrikoa bera, behin esan zion ez zituela bilobak soken parkera (estalita dagoen horretara) eramaten kanpotar asko dagoelako".*

Los **lugares de ocio**, como los bares, restaurantes, piscinas, playa, parques o polideportivo, son espacios donde habitualmente se producen situaciones de discriminación. Una parte de la población autóctona no quiere compartir dichos espacios y/o vincula a la población migrada y refugiada con la delincuencia.

Hombre migrado: *"Cuando entras en algún restaurante para comer algo te miran desde el primer momento. Dicen que tienes que pagar primero, antes de comer".*

Hombre migrado: *"Cuando caminas al lado de una persona que tiene una mochila, esta coge su mochila como así [agarrándola]. Esto pasa mucho en la playa, sobre todo con marroquí".*

Hombre migrado: *"Aquí durante el carnaval, cuando había mucha gente. Viene la policía y siempre paran al latino y al marroquí. La semana del carnaval si eres latino o marroquí te ponen contra la pared [para cachearte]".*

Mujer migrada: *"Una compañera de trabajo de mi madre, vasca, le hizo un comentario de cómo no lleva a sus nietos al parque de las cuerdas, el que está cubierto, porque hay mucha gente de fuera".*

Gizon migratua: *"Kiroldegian ere bai. Makinaren batean nabilenean, pertsona batzuk, bai, gerturatu egiten zaizkit, baina beste batzuk, ordea, ez zaizkit gerturatzeko makina libre egonik ere. Amaitu eta alde egiten dudanean, orduan esertzen dira makinan".*

Azkenik, interesgarria da ondorengo faktore hauek jasotzea; izan ere, **diskriminazio-egoerak larriagotzen, eragiten edo aldatzen dituzte:**

- Pertsona askok beloa gaitzesten dute; ondorioz, beloa daramaten emakumeek diskriminazio bikoitza pairatu ohi dute.

Emakume migratua: *"Zer ez ote diote egingo zapia daraman emakumeari?"*

- Egoera bera asko alda daiteke lekuaren arabera. Bere auzotik edo herritik ateratzen denean, egunerokoan gertatzen ez zaizkion diskriminazioak paira ditzake pertsonak..

Emakume migratua: *"Salbu nago herrian ezagutzen nautelako, baina, herritik ateratzen naizenetan, ez naiz ezer. Beraz, beti gaude berdin, ezta?"*

- Moltz homogeneoa balira bezala hitz egin dugu pertsona migratu eta errefuxiatuez, baina diskriminazio-egoerak desberdinak izaten dira jatorriaren edo ezaugarri fisikoen arabera

Hombre migrado: *"También en el polideportivo. Cuando estoy en una máquina hay gente que viene a mi lado, pero hay otra gente que estando la máquina libre no viene a mi lado. Cuando acabo y salgo es cuando la persona se sienta ahí".*

Por último, es interesante recoger algunos factores que han sido identificados como **agravantes, generadores o modificadores de situaciones de discriminación:**

- El velo es una prenda que produce rechazo en muchas personas, por ello las mujeres que lo llevan suelen vivir situaciones doblemente discriminatorias.

Mujer migrada: *"¿Qué no le van a hacer a una señora que le ven con pañuelo?"*

- La misma situación puede ser muy diferente según el espacio donde se produzca. Cuando la persona sale de su barrio o pueblo puede sufrir discriminaciones que en su día a día no le ocurrirían.

Mujer migrada: *"Yo estoy salvada porque me conocen aquí en el pueblo, pero cuando yo salgo de aquí del pueblo, yo no soy nada. O sea, que siempre seguimos en la misma, ¿no?"*

- Aunque hemos hablado de personas migradas y refugiadas como un conjunto homogéneo, se producen situaciones de discriminación diferentes según el origen o los rasgos físicos.

Gizon migratua: *"Latinoamerikar gutxik izaten dituzte arazoak, baina marokarrek, beti".*


- Espazio berean eta egoera beraren aurrean, solaskidea izan daiteke diskriminazio-egoeraren eragilea batzuetan..

Gizon migratua: *"Baina leku berean, enpresa berean [erakundearen izena], gizarte-zerbitzuetako erakunde berean, pertsona batek eskaintzen du arreta, eta bi egun beranduago beste batek. Eta tratuak oso desberdinak dira".*

Hombre migrado: *"Pocos latinos tienen problemas, pero los marroquíes siempre".*

- En un mismo espacio y ante una misma situación, en ocasiones puede ser la persona interlocutora la que puede generar la situación de discriminación.

Hombre migrado: *"Pero el mismo lugar, la misma empresa, [nombre de entidad], la misma entidad de servicios sociales, atendido por una persona y dos días después atendido por otra persona. Y tratos tan diferentes".*





4.

leheneste
Priorización

Diagnosi-fasea amaitu eta diskriminazio-egoerak antzeman ondoren, beharrezkotzat jo genuen egoera batzuk lehenestea eraginkortasunez lan egiteko. Izan ere, mugatuak dira denbora eta baliabideak, eta ezinezkoa da egoera guztiak jorratzea. Horiek horrela, hiru egoera lehenetsi genituen. Horretarako, hiru faktore hartu genituen kontuan:

- **Errepikapena.** Taldeetan gehien errepikatu ziren diskriminazio-egoerak aztertu ziren. Eskubide-urraketak egiturazkotzat jotzen dira kasu isolatua ez direnean eta populazioaren zati nabarmen batek bizi dituenean.
- **Inpaktua.** Pertsonen bizitzan inpaktu garrantzitsua duten diskriminazioak hartu ziren aintzat, diskriminazio errepikatuenak ez izan arren. Diskriminazio batzuek urratu egiten dituzte bizitza duinerako oinarriko eskubideak edo beste eskubide batzuetara iristeko gako direnak.
- **Egingarritasuna.** Diskriminazio orotan esku hartu behar bada ere, jakin badakigu gure aukerak mugatuak direla; hortaz, geure jarduteko gaitasunaren arabera lehenetsi ditugu egoerak.

Irizpide horiek oinarri hartuta, diskriminazio-egoera hauek lehenetsi genituen sakontze-fasean lantzeko: profil etnikoaren arabera identifikazioak, diskriminazioa etxebizitza eskuratzean eta diskriminazioa banku-produktuak kontratatzean.

Después de finalizar la fase de diagnóstico para detectar situaciones de discriminación, consideramos necesario priorizar algunas de ellas para poder trabajar de manera efectiva, debido a la imposibilidad de abordarlas todas por la limitación de tiempo y recursos. Así pues, decidimos priorizar tres de ellas. Para ello tuvimos en cuenta tres factores diferentes:

- **Repetición.** Se vieron cuales habían sido las situaciones de discriminación que más se habían repetido en los grupos. Una vulneración de un derecho es estructural cuando esta no es un caso aislado y la vive una parte significativa de la población.
- **Impacto.** Se valoraron discriminaciones que, aunque no eran mayoritarias, tenían un impacto importante en la vida de las personas. Existen discriminaciones que vulneran derechos que son considerados básicos para una vida digna o son la llave de acceso a otros.
- **Factibilidad.** Aunque se debe intervenir sobre todas las discriminaciones, somos conscientes de que nuestras posibilidades son limitadas, por lo que se priorizaron situaciones sobre las que teníamos capacidad de actuación.

A partir de estos criterios, finalmente optamos por las siguientes situaciones de discriminación prioritarias para trabajar en la fase de profundización: las identificaciones por perfil étnico, la discriminación en el acceso a la vivienda y la discriminación en la contratación de productos bancarios.

Poliziak profil etnikoaren arabera egindako identifikazioak. Diskriminazio instituzionalen artean aipatuena izan da; ez die uzten bizitza normala egiten pertsona migratu eta errefuxiatuei, eta estigmatizatu egiten ditu eremu publikoan. Kolektibo batzuek, gainera, hain dute barneratua, ezen normalizat hartzen baitute.

Diskriminazioa etxebizitza eskuratzean. Salgaia beharrean, bizitza duinerako oinarriko eskubidea da etxebizitza. Higiezin merkatuak pertsona migratuak eta errefuxiatuak diskriminatzen ditu; izan ere, bete ezinezko baldintzak inposatzen dizkie etxebizitza eskuratzeko.

Diskriminazioa banku-produktuak kontratatzean. Europar Batasunean bizi diren pertsona guztiek dute banku-kontua izateko eskubidea, eta ezinbesteko baldintza da oinarriko eskubide sozial eta ekonomikoak eskuratzeko.

Las identificaciones por perfil étnico por parte de los cuerpos policiales. Se trata de una de las discriminaciones institucionales más nombradas, lo que impide a las personas migradas y refugiadas realizar una vida normalizada y las estigmatiza públicamente. Incluso algunos colectivos las tienen tan interiorizadas que las ven como algo normal.

La discriminación en el acceso a la vivienda. Lejos de ser una mercancía, la vivienda es un derecho básico para una vida digna. El mercado inmobiliario ha discriminado a la población migrada y refugiada imponiendo requisitos de acceso a veces insuperables.

La discriminación en la contratación de productos bancarios. Tener una cuenta bancaria es un derecho que tienen todas las personas residentes en la Unión Europea y constituye un requisito imprescindible para acceder a derechos sociales y económicos básicos.





Diskriminazio-egoeretan
sakontzeko fasea
*Profundización en
situaciones de discriminación*

Diagnosia eta leheneste-fasea burutu ondoren, sakontze-faseari eman zitzaion hasiera, aurrez antzemandako diskriminazio-egoeretan sakontzeko eta horien aurka borrokatzeko estrategiak ezagutzeko asmoz. Migratuen eta errefuxiatuen eztabaida-taldeek eta tokiko erakundeek hartu zuten parte fase horretan. Espazioen dinamizazioan Mikel Mazkiaranek eta Miguel Viñasek lagundu zuten; Eraberean Sareko kideak dira biak, eta azken horren barruan dago Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak. Eraberean Sarea Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, eta helburutzat du arrazaren, etniaren, nazioaren, sexu-orientazioaren nahiz genero-identitatearen ondoriozko diskriminazioari aurre egitea.

Jarraian, eztabaida-taldeen ondorio nagusiak jasotzen dira.

Profil etnikoaren arabera identifikazioak

Diagnosi-fasean, poliziaren diskriminazio-praktikak identifikatu ziren, hala nola kale-egoeran dauden pertsonen utzarazteak, kolektibo jakinen atxiloketak, autoritate-gehiegikeria, profil etnikoaren arabera gelditze eta identifikazioak eta administrazio-prozedurak gauzatzeko oztopoak.

Zenbait ezaugarri delitu-portaerekin lotzen ditu poliziak; beraz, kolektibo batzuek aukera handiagoa dute geldituak eta identifikatuak izateko. Ezaugarri horiek dira, besteak beste, ezaugarri fisikoak, hitz egiteko doinu bereizgarriak eta janzkera jakinak. Gazteenak gelditzen ditu gehien poliziak, taldean doazenean bereziki. Arrazoiak ematen dituztenean, delitu bat egin duen norbaiten bila ari zirela aipatzen dute autoritateek, eta oso deskribapen lausoa egiten dute; adibidez, arabiarra edo beltza zela aipatzen dute, xehetasun gehiagorik eman gabe.

Después de completar las fases de diagnóstico y priorización, se inició la fase de profundización para indagar en las situaciones de discriminación previamente identificadas y conocer estrategias para luchar contra ellas. Esta fase se llevó a cabo mediante grupos de discusión entre personas migradas y refugiadas y organizaciones locales. Para apoyar la dinamización de estos espacios se contó con Mikel Mazkiaran y Miguel Viñas, integrantes de la Red Eraberean, de la que es parte Zehar-Errefuxiatuekin. Esta red es una iniciativa del Gobierno Vasco para combatir la discriminación racial, étnica, nacional, de orientación sexual e identidad de género.

A continuación, se presentan las principales conclusiones obtenidas en estos grupos de discusión.

Identificaciones por perfil étnico

Durante la fase de diagnóstico se identificaron varias prácticas discriminatorias por parte de los cuerpos policiales, como desalojos de personas en situación de calle, detenciones de colectivos específicos, abuso de autoridad, paradas e identificaciones por perfil étnico y obstáculos en el acceso a procedimientos administrativos.

Hay una serie de características, asociadas por los cuerpos policiales con comportamientos delictivos, que hacen que algunos colectivos tengan más posibilidades de ser parados e identificados: rasgos físicos, acentos distintivos, un tipo de vestimenta concreta... Las personas más jóvenes, especialmente cuando van en grupo, sufren un mayor número de paradas. Cuando las fuerzas de la autoridad exponen alguna motivación, se refieren a la búsqueda de alguna persona que ha cometido un delito y ofrecen una descripción muy vaga, como, por ejemplo, que se trata de una persona árabe o negra sin aportar más detalles.

Mota horretako diskriminazioa pairatzen duten pertsonak egoera zaugarrian egoten dira; horrek, beraz, beldurra eragiten die, eta are handiagoak izaten dira sumisioa nahiz babesgabetasuna, batez ere egoera irregularrean daudenean, iritsi berriak direnean edo gaztelaniaz ondo mintzatzen ez direnean.

Tradizionalki, migratu eta errefuxiatu gehien dauden espazioetan gelditu ohi dituzte poliziek pertsonak. Supermerkatuen eta kulturaguneen inguruan polizia dagoenean, migratu eta errefuxiatuek ez dute horietara sartu nahi izaten; ondorioz, pribilegio bilakatzen da aisialdia eta saltoki handietara sartzeko aukera. Hala ere, parte-hartzaileek aipatu dutenez, pertsona horiei babesa ematen dieten erakunde eta gizarte-mugimenduen egoitzen inguruan egoten da polizia gehien.

Norbait gelditzen dutenean, nagusitasun-estatus batetik egiten du lan poliziak, eta, errugabetasun-presuntzioa ukatzeaz gain, gehiegikeriaz ere jarduten du batzuetan. Pertsona migratu edo errefuxiatuek beren eskubideak defendatu dituzten kasuetan, isunak jarri, eta argazkiak atera dizkie poliziak; kasu batzuetan, gainera, eskuburdirak jarri dizkie eta atxilotu ere egin ditu. Lekukoek poliziaren esku-hartzea grabatu dutenean, identifikatzeko eskatu die poliziak, eta grabagailua (kamera edo mugikorra) txikitu ere egin die noiz edo noiz. Kexak eta salaketak egon diren kasuetan, nabarmendu beharra dago Estatuko segurtasun-kidegoek egitasun-presuntzioa dutela. Agintariei jarkitzeagatik kontra-salaketak jartzeko estrategia dagoela ere antzeman da. Korporatibismoak eta gaitasun juridiko handiak indartzen dute estrategia hori, eta, berezko abokatuak dituztela kontuan hartuta, zaila da aurka egitea.

